



Haurrak eta Helduak
Hiria Elkarrekin lantzen



Haurren Hirien Sarea
Red Vasca Ciudades con la Infancia

Haurren Hirien Sarea - #UmHerril6 Jardunaldiak



#Umherri16 jardunaldiaren laburpen-txostena:

DOKUMENTUAREN ATALAK:

1.- Sarrera.

Umeak eta helduak #Umherri16 jardunaldian

2.- Gauzak ezberdinen artean eraikitzea.

Zergatik eta nola egin da umeen eta helduen arteko elkarlana #UmHerri16 jardunaldian?

3.- Erronkak.

"Haurrak eta hiria" testuinguruan proposatutako erronkak, labur azalduta

4.- Ekarpenak.

Ideiak, ikuspegia, hausnarketak... #UmHerri16 jardunaldiko erronken inguruan.

5.- Dokumentuak eta beste material batzuk.

Jardunaldiko hizlarien aurkezpenak, bideoa eta beste material batzuk.

Egin klik puntuetan dokumentuan batetik bestera ibiltzeko.

ALKATE JAUNA, EZ DUGU
TXIRRISTARIK, EZ
ZABURIK NAHI, HIRIA
NAHI DUGU



FRATO'02

O. Testuingurua. Haurren Hirien Sarea. #UmHerri16.

Haurren Hirien Sarea
Umeen udalerrien
sarea.

Komunitateak eta pertsonak.

Bizitzeko, harremanetarako, hazteko... baldintzak hobetzearekin arduratuta daudelako Aniztasuna, parekidetasuna, elkarrekiko babesa eta abar behar dituztelako Norbere ikaskuntzaren eta hazte kolektiboaren erantzule direlako Erabakitze eta tokian tokiko ekintzak egiteko gaitasuna dutelako

Haurren Hiria edo
Umeen Herria.
Proiektua.

Tokiko ekintzak egiteko proposamenak.

- Haurren Kontseilua: Alkatetzako aholku-organoa. Harremanetarako modu berriak praktikatzeko eta helduen begirada eraldatzeko.
- Eskolara lagunekin: umeen mugimendu - autonomia berreskuratzea denon espazioari buruz berriro pentsatzeko.

#UMHERRI16
Haurrak eta Hiria
jardunaldia.

Helburuak, egitura eta pertsonak.

- Ezagutaraztea. Osoko bilerak: komunitatea eta hirigintza.
- Partekatzea eta hausnartzea. Erronkak: ibilbideak eta aurkezpenak
- Proposatzea eta zabaltzea. Proposamenak: elkarlanerako saioa ezberdinen artean
- Elkarrekin. Umeak eta helduak.



#UmHerri16 Haurrak eta Hiriak

1. Sarrera. Jardunaldia. Umeak eta helduak #Umherri16 jardunaldian

Umerri16 "Hiria eta haurrak" jardunaldia Bilbon izan zen 2016ko azaroaren 17an eta 18an.

HaurrenHirienSarea (HHS - Haurren Hiria edo Umeen Herria) sarearen hirugarren jardunaldiak antolatu zituzten eta **bi izan ziren helburuak**:

- Batetik, umeen hiria **proiektua** eta HHS sarea **aurkeztea**: sareko kide diren 12 udalerriak eta proiektuaren motibazioak nahiz ekintza-proposamenak.

Hilaren 17an osoko bilkura egin genuen Euskaldunan eta hilaren 18an, berriz, COAVNn. Bi topaketa horiei esker, bi ikuspegitatik begiratu genion proiektuari: komunitate mailatik eta hirigintzatik.

Hona hemen bi jardunaldietan parte hartu zutenetako batzuk: Francesco Tonucci LaCittaDeiBambini nazioarteko sareko arduraduna, Innobasque, Solasgune, EHU eta HHSko ordezkariak eta HHSn inpikatutako beste eragile batzuk eta Sareari atxikitako hamabi udalerriak (udalerrri horietako alkateak eta ardura tekniko eta politikoko beste pertsona batzuk).

Funtsezko ideiak:

Haurrei eta hiriari buruzko #UmHerri16 jardunaldian, umeak eta helduak bildu ginen gure herri eta hiriak hobetzeko erronkei elkarrekin erantzuteko:

- * Nola lor dezakegu zuek herrian oinez AUTONOMIAZ ibiltzea?
- * Nola lor dezakegu zuei eragiten dizueten gauzetan zuek ere PARTE HARTZEA?
- * Nola lor dezakegu zuek gehiago eta hobeto JOLASTEA?
- * Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin HAZTEA?

Jardunaldi haien laburpena da dokumentu hau.



1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena).

- Bestalde, hausnarketari eta gure hiri eta herriak umeen **begirada txertatuta eraldatzeko proposamenak diseinatzeari lekua eskaini** nahi genien.

Horretarako, umeak eta helduak gonbidatu genituen proiektuaren ardatz diren lau erronken aurkezpena: parte-hartzea, euskal udalerrien eraldatze urbanistikoa, umeen eskubideak eta komunitatearen garapena ikaskuntza inklusiborako ingurune izan dadin. Udaletan erantzukizun tekniko eta politikoak dituzten pertsonak, hezkuntza-munduari eta komunitate-

osasanari lotutakoak, arkitektoak eta hirigileak eta gure espazio fisikoak eta harremanetarako espazioak kudeatzeaz eta diseinatzeaz arduratzen diren beste pertsona batzuk. Horiek denak 80 umerekin bildu ginen hausnarketak egin, hitz egin eta elkarrekin erronkei erantzuteko proposamenak diseinatzeko.

Dokumentu honetan han **hitz egin, eraiki eta adostutakoa jasotzen saiatu gara.**

Funtsezko ideiak:

Umeen hiria proiektua eta Haurren Hirien Sarea ezagutarazi nahi genuen. Eta elkarrekin pentsatu nahi genuen gure herri eta hiriak nola hobetu. Eta horretarako, #UmHerri16 jardunaldiak antolatu genituen:

- *1.- Sarearen aurkezpena eta esperientziak.
- *2.- Jardunaldiaren erronken aurkezpena
 - Hitzaldiak eta elkarrizketa helduentzat.
 - Aukezpena eta elkarrizketa umeentzat.
- *3.- Elkarlana erronkei nola erantzun pentsatzeko.
- *4.- Hirigintzari buruzko hitzaldiak.



#UmHerri16

1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena). 1.1.- Sarearen aurkezpena eta HHSren esperientziak.



Funtsezko ideia:

Francesco Tonucci, Gotzon Bernaola, Gurutze Ezkurdia, Mari Carmen Urbieta eta Juan Mari Aburtuk eman zioten hasiera ekitaldiari eta sarea aurkeztu zuten.

Ondoren, HHSko alkateek proiektuaren inguruko esperientziak eta motibazioak elkarri kontatu zizkioten.



1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena). 1.2.- Erronken aurkezpena helduentzat.



Funtsezko ideiak:

Honako hauek aritu ziren iritzi, ezagutza eta esperientzien berri elkarri ematen: Jaume Funes Bartzelonako unibertsitatekoa, Nerea Cereceda eta Arantxa Oria Tolosako Udalekoak, Iban Rodriguez Leioako Udalekoa, Jesus Fole Pontevedrako Diputaziokoa, Jaume Bantulá Ramon Llull unibertsitatekoa, Elsa Fuente Unicef Euskadikoa, Beatriz Nuin Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa eta Piter Blanco Solasgunekoa.



#UmHerri16

1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena). 1.2.- Erronken aurkezpena umeentzat.



#UmHerri16

1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena). 1.2.- Erronken aurkezpena umeentzat.



1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena) 1.2.- Erronken aurkezpena umeentzat.



Funtsezko ideiak:

UmHerri16ren helburua egiten ikastea, jolastea, diseinatzea, irudikatzea eta gure hiri eta herriak elkarrekin berreraikitzea zenez, sareko hamabi udalerritatik hiruk haien udalerrietako umeak gonbidatu zituzten jardunaldian parte hartzera.

- * Udalerri batzuetako Haurren Kontseiluarekin harremanetan jarri ginen eta ikastetxe batzuekin ere bai. Umeak gonbidatu eta eskuratu beharreko baimenak eskatu genituen. Azkenik, Balmaseda, Bilbo eta Leioako 84 ume etorri zitzaizkigun. 9-11 urteko umeak, hain zuzen. Eta seiko taldetan banatu ginen erronkak eta joko-arauak ulertzeko eta ziurtatzeko umeak ulertu zutela laguntza eskatzeko gonbidatu genituela.



1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena). 1.3.- Elkarlana erronkei nola erantzun pentsatzeko.



* Funtsezko ideiak:

Arratsaldeko saioan, jardunaldiko erronka bakoitza taldeka landu genuen. Hala, 160 lagun bildu ginen guztira: aurretik ibilbideetan egondako 76 heldu, eta 84 ume.

Denon artean, lau erronkei erantzuten saiatu ginen, bakoitzak bere esperientziak, ikuspegiak, begiratzeko moduak eta hirian/herrian bizitzeko moduak kontatuta. Askotariko kontuak atera ziren.

Txosten honetan bertan jaso ditugu taldeek eginiko ekarpenak. Pernan Goñik lagundu zigun gauzak zehazten eta umorea ere ekarri zigun.



1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena).

1.4.- Hirigintzari eta hurrei buruzko topaketa Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean.



Funtsezko ideiak:

- ✦ Azaroaren 18an, COAVNren egoitzan bildu ginen herriak eta hiriak hobetzea helburu duten esperientziak entzuteko. Zenbait proposamen aipatu ziren:
 - . Kaleak, plazak eta mugikortasunari lotutako joko-arauak fisikoki eraldatzea.
 - . Pertsonen espazio horiek erabiltzeko ditugun moduak aldatzea.
- ✦ Espazioak zer garrantzi duen eta espazioa modu jakin batean eta ez bestean nola eta zergatik antolatzen dugun ulertu genuen. Orain, gidatzen dutenak eta lan egiten dutenak gogoan hartuta egiten dugu. Baina badira antolaketa egiteko beste modu batzuk "kalea berreskuratzea" bada helburua.

Baditugu informazioa eta datuak jakiteko badirela hobeto bizitzeko eta aukera gehiago izateko modua eskaintzen duten espazioak antolatzeko beste modu batzuk. Eta badakigu badirela gure osasunari eta harremanak izateko moduari kalte egiten dioten espazioak ere.



1. Sarrera. Jardunaldia eta jendea. (jarraipena).

1.4.- Hirigintzari eta haurrei buruzko topaketa Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean.



Funtsezko ideiak:

Aipatu genuen gure herri eta hirietan zerbait gaizki dagoela umeek ezin badituzte herri eta hiri horiek esploratu eta ezagutu. Eta hori lantzen hasteko lehen urratsa umeak eskolara lagunekin joaten hastea izan daitekeela. Nola eta nondik joan behar duten esango dien heldurik gabe.

Hiriak denontzako leku osasungarri bihurtzeko, umeekin eta umeengandik abiatuta lan egitearen onurez hizketan aritu ginen. Umeek, izan ere, heldu gehienok galdua dugun gaitasuna dute: beldurrik gabe pentsatzea eta irudikatzea.

→ Honako hauek izan genituen hizlari: Matxalen Acasuso COAVNekoa eta Gotzon Bernaola Innobasque-koa, Francesco Tonucci, Raquel Salcedo Bilboko Udalekoa, Cesar Mosquera Pontevedrako Diputaziokoa eta Patxi Cirarda Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa.



#UmHerri16 Haurrak eta Hiriak

2. Ezberdinen artean. Zergatik eta nola egin da umeen eta helduen arteko elkarlana #UmHerri16 jardunaldian?

Uste dugulako gure hiriak/herriak umeekin eraikitzen baditugu, hiriak/herriak han bizi diren **pertsona guztientzako izango direla hobek.**

Horretarako, harremanak begirunez izaten ikasi behar da (pertsonek artean, helduen eta umeen artean): entzuten, ondo tratatzen, ez epaitzen...

Umeek zer pentsatzen zuten jakin eta haien **proposamen eta ideiak jaso** nahi genituelako, ondoren partekatzeke.

Ezin da haien ikuspegia gure komunitateen garapenean txertatu beharra dagoela esan eta, ondoren,

umei buruzko jardunaldi bat umeen parte-hartze aktiborik gabe antolatu.

Parte-hartzea ikasteko eta norbanakoa zein taldea **ezagutzeko prozesu bat da.**

Kostatu egiten zaigu parte hartzea eta are gehiago kostatzen zaigu ezohiko testuinguruetan eta gu ez bezalakoak diren pertsonekin parte hartzea. Gaitasun horiek eskuratzeko, "entrenatu" eta desberdintasunak errespetatzen eta ikusten ikasi behar da.

Funtsezko ideiak:

- ✳ Umeek erabakiak hartzeko eta entzunak izateko eskubidea dute. Eragiten dieten gauzen parte izateko eskubidea ere badute.
- ✳ Gainera, gaitasunak dituzten pertsonak dira. Ideia onak dituzte eta mundua guk ez bezala ikusten dute.
- ✳ Gure herriak, plazak, harremanak izateko modua eta abar aldatu nahi baditugu... Elkar ondo tratatzen eta erabakiak orain arte ez bezala hartzen ikasi nahi badugu... Denengan pentsatzen ikasi nahi badugu... Badirudi elkarrekin egitea dela aukerarik onena, eta hor, umeak ere sartzea, gure mugez eta desberdintasunaren balioaz jabetuta.



Nola sortu parte-hartzea kalitatezkoa izateko baldintzak?

Haurren Hiria Sareko taldeak "Umherri16: Haurrak eta hiria" jardunaldia diseinatzeko garaian izandako erronketako bat azaroaren 17ko elkarlaneko mintegirako beharrezko baldintzak sortzea izan zen. Horretarako, zenbait gai hartu zituzten kontuan, bai diseinuaren fasean, bai parte-hartzeko saioan:

1. Gonbidapena.

Haurren Hiria udalerririk eraldatzeko proiektu bat da eta helburua komunitateko pertsoneri, harremaneri eta espazio fisikoei eragitea da.

Horregatik, Haurren Hirien Sarea osatzen duten udalerrietako bakoitzak bere herriko umeak hausnarketa partekatu honetako parte izateko modua bilatu zuten.

Jardunaldian umeen parte hartzea

posible egiteko prozesua ez zen erraza izan. Zenbait gai kudeatu behar izan zituzten udalek zein hezkuntza-komunitateak umeek jardunaldian parte har zezaten.

Azkenean, sareko hiru udalerritatik (Balmaseda, Bilbo eta Leioa) etorritako 80 umetik gorako talde batek hartu zuen parte jardunaldian.

Funtsezko ideiak:

Nola lortu umeek parte hartzea? Nola lortu haiek ondo sentitzea? Zer behar dute guk entzun nahi dugunaren ordeztan benetan sentitzen edo pentsatzen dutena esan ahal izateko?

Hona hemen pentsatu eta landu behar izan genituen gauza batzuk:

- *1.- Helburua herriak hobetzea zela kontuan hartuta, sareko herri batzuetako umeak gonbidatu genituen. Ez da erraza umeak horrelako zerbaiteira gonbidatzea. Baimen ugari eskatu behar da.

Azkenean, Balmaseda, Bilbo eta Leioako 84 ume etorri ziren.



2. Harrera eta ulertzea.

Jardunaldiak umeentzako lagunarteko eta gertuko espazioak ez zirela aintzat hartuta, lanerako espazio bat diseinatu genuen bi fasetan Sareko profesional taldearekin batera, abiapuntu egoki bat eraiki nahian. Batez ere, udalerrietako teknikari eta politikariek osatu zuten taldea.

Lehen fasean, jardunaldien harrera eta testuingurua landu genituen (sarea, kezkak, laguntza-eskaera, gure ikaste-prozesua, joko-arauak...).

Bigarrenean, erronka bakoitzak berekin zekartzan esanahiak eta inplikazioak lantzeko elkarrizketan aritu ginen. Hala, arratsaldeko saioko lana, ibilbide tematikoetan egondako helduekin egindakoa, abiapuntu hobetik egin ahal izan genuen.

Euskarri-material espezifikoak diseinatu ziren, bai testuingurua kokatzeko, bai erronken inguruko hausnarketarako, eta goizeko saioan erabili genituen umeekin.

Funtsezko ideiak:

* 2.- Bagenuen beste kezka bat ere: umeak lekuz kanpo sentitzea:

- Gure galderak ez ulertzea.
- Jarduera aspergarria izatea.
- Behatuak edo epaituak sentitzea.

Hala, lehen erabakia izan zen umei harrera egitea, proposamena, gaiak eta joko-arauak ondo azaltzea garrantzitsua zela zehaztea.

Eta horretarako, goizean talde txikitan jarri eta elkarrekin bazkaldu genuen "elkarrekin lan egiten" hasi aurretik.



3. Helduen ikaskuntza.

Umeen ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen ikasteko, umeein harremanak izaten ere ikasi egin behar da eta horretarako, jabetu egin behar dugu gaitasunak dituzten pertsonak direla, gurekin alderatuta desberdinak, eta hobetzeko eta aukerak bilatzeko haien ekarpenak eta ideiak behar ditugula.

Hori horrela, Haurren Hirien Sarea osatzen duten pertsonen taldeak (Sareko 12 udaletako 20 teknikari eta politikari baino gehiago) gaikuntzarako eta prestakuntzarako prozesu batean hartu zuen parte urrian, azaroaren 17ko

saioan partaidetzaren bideratzaile-funtzioa bete ahal izateko.

Zenbait saio egin genituen umeei buruz genituen ideiak aztertzeko: gure aurreiritziak eta beldurrak, itxaropenak eta motibazioak eta abar. Umeein harremana izateko ditugun estiloak eta ohitura horiei lotutako hartu ezinezko arriskuak ere aztertu genituen.

Jardunaldian laguntza eskaintzearen zeregina gure ikaskuntzaren zati gisa landu genuen. Eta hala jakinarazi genien partaide guztiei.

Funtsezko ideiak:

3.- Sareko udaletan lan egiten duten pertsonak elkarrekin aritu dira zenbait hilabetez umeein harremanak nola izaten ditugun pentsatzen. Eta jabetu dira, gehienetan, ez gara oso ondo aritzen.

*Horregatik, jardunaldiaren aurretik, lanean aritu gara, ikasteko. Benetan entzuten, ez manipulatzeko, harremanak begirunez eta zintzotasunez izaten ikasten aritu gara.

Eta horretan jarraitzen dugu.



4. Joko-arauak.

Edozein espaziotan da garrantzitsua testuingurua, harremanetarako akordioak, mugimenduetarako tarteak eta abar ezagutu eta ulertzea, "autonomiaz jokatu" ahal izateko.

Horregatik, partaidetza-saioaren hasieran, "joko-arau" horiek azaldu genituen, konfiantza eta parekidetasuna oinarri izango zituen testuingurua edo gutxieneko baldintzak sortzeko, denen parte-hartzea, partaideak adin batekoak edo bestekoak izan, kalitatezkoa eta orekatua izatea bermatzeko.

Aurreiritziak eta jokabide paternalistak

gainditzen eta ekarpen guztien balioa aitortzen lagunduko ziguten abiapuntuak ezarri genituen. Arau hauek partekatu genituen saioan:

- Elkarrekin ikastera etorri gara.
- Ideia guztiak dira onak gaur eta hemen.
- Saiatu denok elkar ulertzeko moduan hitz egiten.
- Arazoetan trabatuta gelditu gabe bilatu behar ditugu gaur irtenbideak.
- Egiten duguna egiten dugula, ondo egongo da.
- Gure herriak nola hobetu pentsatzen ari gara.

Funtsezko ideiak:

4.- Garrantzitsua zen joko-arauak denok (gonbidatutako umeak eta lankide izango genituen gainerako helduak) ulertu eta geure egitea, denok ondo egoteko.

*Arauek argi ezarri zituzten ideia hauek:

- Umeak eta helduak; inork ez daki besteek baino gehiago.
- Ez ditzala inork ulergaitzak diren hitz arraroak erabili.
- Pentsa dezagun modu positiboan.
- Ez gaitezen kezkatu "ondo edo gaizki ari ote garen".
- Ideia guztiak izan daitezke erabilgarriak jardunaldi honen erronketarako.
- Gure herriak nola hobetuko ditugun elkarrekin pentsatzea da helburua.



5. Lanerako materialak eta dinamikak.

Azkenik, arratsaldeko saioari lotuta, gogoetak irudikatzeko materialekin osatutako metodologia bat diseinatu eta burutu genuen, erronkei aurre egitearen gaia elkarlanean jorratzeko.

Askotariko lanerako moduak azaleratzea helburu zuten materialak eta tresnak. Kontuan hartu genuen gutako bakoitzak erabiltzen dituen estrategiak eta behar dituen tresnak eta denborak besteengandik desberdinak izan daitezkeela eta, bestetik, bi orduko saio batek mugak dituela.

Horretarako, mapa mentalak eta euskarri-materialak prestatu genituen (eranskailuak, ebakigarriak, err otuladoreak, etab.) eta haiei esker, partaideek ohikoa baino modu bisualagoan eta dinamikoagoan lan egin ahal izan zuten.

15 lan-mahaitan bildu ginen. 6 ume eta 4 heldu bildu ginen mahai bakoitzean laguntzaile batekin. Hark gogorarazi eta betearazten zituen joko-arauak.

Funtsezko ideiak:

5.- Saioak askotariko euskarriak eskaintzea nahi genuen, gutako bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartzeko. Batzuei pentsatzea eta idaztea gustatzen zaie, besteei hitz egitea, eta bada ideiak ondoen marrazkien bidez adierazten dituenik ere.

*Horregatik, mapak, paper handiak, irudidun eranskailuak eta eranskailu zuriak, errotuladoreak eta abar izan genituen 15 lan-mahaietan.



3. Lau erronka partekatu genituen gure hiri, herri eta auzoak eraldatzeko.

Komunitatetan antolatuta gaude pertsonak eta diseinatu, probatu eta garatu egiten ditugu gobernatzeko ereduak, egiturak eta ohiturak, bizikidetzak eta kudeaketa, unean uneko beharrei eta erronkei erantzuteko.

Azken urteetan helduek diseinatu dituzte hiriak eta herriak eta orain behar berriei erantzun behar diete. Horregatik da garrantzitsua tokiko ingurunea berriz pentsatzeko eta berrantolatzeko espazioak sortzea.

Trantsizio hori bertako biztanleen aniztasuna aintzat hartuta egiteak handitu egiten du gure proposamenek arrakasta izateko aukera.

Erraz egiazta daiteke espazio komunitarioa galdu dugula espazio publikoaren ideiarekin, eta horrek askatasunean, erantzukidetasunean eta konpromiso komunitario eta sozialean galera ekarri digu. Izan ere, komunitateetan hazten gara, tokiko espazio komunitarian, herri eta hirietan.

Eta horiek hazteko eskaintzen dizkiguten baldintzen arabera hazten gara, ezinbestean: geure ideiak adierazteko eta beste batzuk eskuratzeko, espazioak erabili eta eraldatzeko, partekatzen ditugun erronketan bakoitzak bere berezitasunak aurkitzeko eskaintzen dizkiguten baldintzen arabera.

Hazten ari den ume batengan hori behatzea helduetan egitea baino errazagoa da. Baina berdin-berdin da baldintzatzailea, gutako edozeinentzat.

Baina... nondik hasi aldatzen?

Haurren Hiriaren proposamena Francesco Tonucciren proiektuan dago oinarrituta. Sinplea da eta aukera ematen du komunitatean ikasteko ingurune bat zer den eztabaidatzen hasteko, abiapuntu edo elementu komun gisa haurrak, "bestea", hartuta.



3. Lau erronka partekatu genituen gure hiri, herri eta auzoak eraldatzeko (jarraipena).

“Umetasuna” gure komunitateko parametrotzat hartu nahi badugu, besteak beste, pentsatzeko, gauzak adierazteko, azken finean izateko moduan ezberdintasuna dakarrelako, aniztasunari lekua egingo dion eta, labor esanda, gure komunitatearen osasuna hobetuko duen oinarri bat sortzeko beharrezkoa den ikaste-prozesua egin behar da.

Abiapuntua hori izanda eta “besteekin harremanak izateko” ohitura- eta baliabide-falta dugula jabetuta, lau erronkaren inguruan lanean hasi ginen. Lau eraldatze-ardatzi lotutakoak dira lau erronkak aldaketarako elementuak

txertatzen eta uztartzen dituzte; bai bizitzarako eta elkarbizitzarako ditugun espazioei lotuta, bai harremanetarako modu eta estiloei eta gure hazkuntza pertsonalari lotuta.

Jarraian azalduko ditugu xehetasunez hilaren 17ko saiorako hautatutako lau ardatzak; bai goizeko ibilbideetarako, bai arratsaldeko partaidetza-tailerrarako hautatutakoak.

Ardatz horietako bakoitza dagokion testuinguruan kokatu dugu eta erronka baten atarikoak da hori. Galdera moduan planteatu dugu:

Funtsezko ideiak:

Nola tratatzen dugu elkar? Nolakoak dira bizileku ditugun espazioak? Nolakoak, iritziak emateko, eraikitze, aldatzeko, sentitzeko eta abarrerako ditugun aukerak? Hazten laguntzen digute, edota okerrago haztera garamatzate?

Eta herri eta hiriek, besteekin partekatzen ditugun lekuek ere gu behar gaituzte hazteko.


✦ Hurrengo atalean irakurgai dituzue aukeratu genituen lau erronkak, gure herriei buruz berriro pentsatzen hasteko lau galderak eta hobeto bizi eta hazteko behar duguna.



Erronkak

1. Hirigintza eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea?



- Erantzukizun administratibo bat haien gain hartzen duten hiriek eta politikariek hierarkia bat dute buruan: garraio pribatua-autoak, garraio publikoa, bizikletak eta oinezkoak. Guk hierarkia horri bira eman eta egituran eta jarreretan eraldatzeak egitea proposatzen dugu.



- Umeek hirietan mugitzeko autonomia berreskuratzea da proposamenaren helburuetako bat. Kalean umeen presentzia izatea, umeentzat osasungarria izateaz gain, gure komunitateetan harreman lotesleak eta konfiantzazko harremanak berreskuratzeko aukera bat da.



1. Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea? Hirigintza eta haurrak.

Funtsezko ideiak:

→ Bizileku ditugun herriak/hiriak hazteko leku onak ez izateak kezkatzen gaitu.

Iruditzen zaigu batez ere autoetan pentsatuta eraiki ditugula eta autoek leku gehiegi hartzen dutela. Edo agian ez. Baina kezkatu egiten gaitu beste gauza batzuetarako espaziorik ez izateak: lagunekin egoteko, topo egin eta berriketan aritzeko, jolasteko, txabolak egiteko, abenturak bizitzeko...

Kezkatu egiten gaitu zerbait gertatzeari berealdiko beldurra diogulako, ez dizuegula zuen herrian libre mugitzen uzten eta beti norbaitekin ibili behar izaten duzuela; eta horren erruz, ausart izateko, beldurra sentitzeko, arriskuak hartzeko, elkarri laguntzeko... aukerarik gabe haziko zaretela agian.

Gainera, badirudi, umeak oinez lagunekin "bakarrik" ibiltzen diren hiriak seguruago bihurtzen direla. Badirudi, zuek hor zehar ibiltzeak helduok arduratsuago jokaraztera eta elkar zaintzera eramaten gaituela.

→ Autonomiaz ibiltzeak aske, baina aldi berean, kontuz ibiltzea esan nahi du. Lagunduko zaituzteten pertsonekin, baina zuei "begira" egon gabe.



2. Parte-hartzea eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuei eragiten dizueten gauzetan zuek ere parte hartzea?



- Hiriak beste ikuspegia ezagutzeko beharra du, umeen ikuspegia, hain zuzen. Uste dugu beste ikuspegi hori oso garrantzitsua dela alkateak denon alkate izateko. Ez umeen alkate bakarrik, baizik denon alkate. Umeak "bestetzat" hartzen dituen ideia paradigmatico hau, ezberdintasuna sinbolizatzen duena.
- Umeek eragiten dieten gaietan parte hartzea ez da eskubidea bakarrik, behar bat ere bada. Umeek hiriaren gobernuan manipulaziorik eta sinplifikaziorik gabe parte hartzea, haiei zintzo entzunez eta jarrera konprometituarekin, ona izango da haientzat eta komunitate osoarentzat.



2. Nola lor dezakegu zuei eragiten dizueten gauzetan zuek ere parte izatea? Parte-hartzea eta haurrak.

Funtsezko ideiak:

→ Kezka sortzen digu zuekin ditugun harremanak onak ez izateak. Harreman horiek sanoak eta bidezkoak ez izateak ere kezkatzen gaitu.

Uste dugu, helduok zuengatik erabakiak hartzeko ohitura dugula. Guk erabakitzen dugu zuek zer arropa jantzi, zer jan, non ikasi, lotara noiz joan, jolasteko orduetan zer egin, "zuentzako" diseinatzen ditugun plazak, jaiak, tailerrak... nolakoak izango diren. Eta horrela, ahaztu egin zaigu ideiak edukitzeko, erabakitzeko eta gauza pila bat egiteko gai zaretela.

Gainera, zuen ikuspegia gurearekin alderatuta hain da ezberdina, zuei ez entzuteagatik, askotan, huts egiten baitugu. Besteengatik erabakiak hartzen denbora luzea igarotzen bada, ohitu egiten da bat beste guztiak ere guk bezala pentsatzen dutela pentsatzera. Eta ohitu egiten gara pentsatzera guk behar dugun hori dela mundu guztiak behar duena. Eta ez da egia.

Horregatik, zuekin harreman interesgarriago bat izatea gustatuko litzaiguke. Zuentzat ona eta gainerakoentzat ere ona izango den harreman bat nahi dugu. Zuei entzuten eta zuek ez epaitzen ikastea gustatuko litzaiguke, zuengandik ikastea, zuek begirunez tratatzen eta herriko gauzetan gutxienez, zuek gurekin parte hartzeko moduak asmatzen ikastea. Gainera, ideia onak amaitu egiten zaizkigu maiz eta asko dira ondo ez dabiltzan gauzak.

→ Parte hartzea: Zer gertatzen den ulertzea, pentsatzen eta sentitzen dugun hori esan ahal izatea, ideiak adieraztea eta ideia horiek aintzat hartuak izatea... Herriaren (edo beste komunitate baten) parte izatea eta han egiten den eta gertatzen den horretan parte hartzea.



3. Eskubideak, jolasa eta hiria.

Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea?



NIÑOS DISEÑADORES

FRATO 94

- Umeen neurrirako hiriak denen neurrirako hiriak dira. Umetasunaren parametroa inklusiboa da, denonak diren beharrei erantzuten baitie. Eta jolastea –topo egitea, galtzea, gauzak aurkitzea, eraikitzea, irudikatzea...– denon beharra da.
- Umeak ez zarete pertsona edo herritar izateko proiektu. Pertsona eta herritar zarete, orain. Pertsona osoak, gaitasundunak, bakarrak zarete, bakoitza modu batekoa.
- Gizakiok, komunitatean bizitzeko dugun behararen bidetik, norbere ongizatea eta bizikidetzat ziurtatzeko helburua duten akordioak egin ditugu. Akordio horietako bat Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala da. Beste bat, umeen eskubideena.
- Umeen eskubide guztiak nazioarteko tratatu batean daude jasota eta gobernuak behartuta daude eskubide horiek betetzera. 1989ko azaroaren 20an sinatu zen akordioa eta 1990ean bihurtu zen lege. Garrantzitsua da eskubide horiek ezagutu eta gaizki egiten ari garena ondo egiten ikastea.



3. Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea? Eskubideak, jolasa eta hiria.

Funtsezko ideiak:

✳ Kezkatu egiten gaitu zuek jolasteko espaziorik, denborarik, lagunik, baldintzarik... ez izateak

Umeen eskubideek funtsezko lau ideia dituzte:

- 1.- Ume guztiek eskubide berdinak dituzue. Berdin da zer adin, kultura edo zer beste ezaugarri duzuen.
- 2.- Zuei eragingo dizuen erabaki bat hartzean, hau kontuan hartzea da garrantzitsuena: zer da zuetako bakoitzarentzako onena?
- 3.- Denek duzue eragiten dizuen edozertan entzunak izateko eta pentsatzen duzuen adierazteko eskubidea.
- 4.- Denek duzue eskubidea zuen ahalmen osoa garatzeko, zoriontsu hazteko eta "imajinatzen duzuenetik harago" joateko eskubidea.

Uste dugu, helduok –gure kezka, erritmo, betebeharrak eta abarretan murgilduta– eta hiriek ere bai, ahaztu egin dugula jolastea ez dela "denbora pasatzea". Jolastea ez da "ondo pasatzea" bakarrik. Jolastea ez da "alferrikakoa". Alde horretatik, garrantzitsua da gogoraraztea beharrezkoa eta oinarrizkoa dela jolasa zoriontsu izateko, ondo hazteko, ikasteko eta lagunak egiteko. Horregatik zuekin batera pentsatu nahi dugu zer behar duzuen jolasteko eta, gero, hori kontuan izan nahi dugu zuen herriak hobetzeko. Zuek libre jolasteko, ero-eroan, gogoak ematen dizuen horretan, nahi duzuenarekin... Gainera, "ez duzuela behar adina jolasten" hori egia bada, legea urratzen ari gara.

✳ Jolastea: Inor ez da ados jartzen jolasa definitzerakoan. Hau esaten dute, adibidez: "jolastea gorputz osoarekin amestea bezalakoa da", "bizitza da jolasa", "gozamina ematen duen oro da jolasa". Baina denok gaude ados esateko jolastu denok egiten dugula. Zuek, umeok, gehiago. Edo agian hobeto bakarrik!



4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?



FRATO

- Geure gaitasunekiko konfiantza berreskuratu behar du gutako bakoitzak eta pertsona berezi izateaz gain, komunitateko parte izateko beharra dugula aitortu ere bai. Komunitate bat herri bat izan daiteke, edo familia, elkarte, lagunarte bat.
- Elkarrekin hazi ahal izateko, komunak ditugun erantzukizunak autonomiaz hartzeko, gure baliabide eta proiektuen iraunkortasuna ziurtatzeko, gure harremanak osasungarriak izateko eta beste harreman batzuk izateko... ikasi egin behar dugu. Eta ikaskuntza hori denok egin dezakegu, denok egin behar dugu, kalean.



4. Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea? Ikaskuntza eta hiria.

Funtsezko ideiak:

✧ Kezkatu egiten gaitu gure hazkuntza –gutako bakoitzarena eta gure komunitateena– "ez-osasungarria" eta "ez-iraunkorra" izateak. Horrek esan nahi du ez doala ondo eta hobea izan litekeela. Talde-komunitate bateko kide eta talde horretan beste pertsona askorekin bizi garela kontuan hartuta haz daiteke gutako bakoitza. Eta hein handiagoan edo txikiagoa, elkarren mendeko garela ere kontuan hartuta.

Gure harremanak, trukea, akordioak eta erabakiak denontzat onak izatea lor dezakegu. Ezinezkoa dirudi, baina nola egin ikasi besterik ez dugu egin behar. Gutako bakoitzaren erantzukizuna da hori ikastea. Guk zer behar dugun eta besteek zer behar duten entzuten, ulertzen, esaten, ematen eta eskatzen ikastea erantzukizun pertsonala da. Baina egia da, halaber, gure ikaskuntza bizitzan (etxean, eskolan, kalean...) aurkitzen ditugun aukeren arabera dela.

Gure herri eta hiritan ikasi egiten dugu. Gainera, denok ikasten dugu horietan. Horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua hirian ikasteko baldintzak hobetzea. Ikasi denok egiten dugula gogorarazteko (ez eskolara joaten diren umeek eta unibertsitatera joaten diren helduek bakarrik) eta denok dugula eskaintzeko, partekatzeko, irakasteko zerbait (ez irakasleek bakarrik, ez helduek bakarrik) gogorarazteko modu bat da. Horregatik gustatuko litzaiguke zuekin batera pentsatzea nola gogoraz dezakegun denok dugula ikasteko beharra eta, era berean, denok dugula komunitateari emateko asko. Nola lor dezakegu berehala hori praktikatzten hastea?

✧ Komunitatea: Elkarrekin bizi edo espazioa, denbora edo helburuak partekatzen dituzten pertsonen taldea. Ikastea: behar bati norbere gaitasunen eta nahien arabera erantzutea. Beti ikasten dugu; baita nahi ez dugunean ere

4. Arratsaldeko saioko partaideek erronken inguruan eginiko ekarpenak.

Atal honetan, UmHerri16 jardunaldiko elkarlanerako saioan taldeka landu genuen guztia azalduko dugu, laburtuta.

Esan genituen gauza asko, sortu ziren eztabaida interesgarri asko, kanpoan utzi behar izan ditugu, laburpena luzeegia izan ez zedin.

Gauzak simple azaltzen saiatu gara ere, denok ulertu eta erabili ahal izateko moduan. Gaiari buruz hitz egiteko eta saioan izan ez zirenei kontatu ahal izateko. Gauza garrantzitsuek ez dute zertan ulertzeko zailak izan.

Laburpen hau saioan parte hartu zuten pertsona guztiei eta Haurren Hirien Sarean lan egiten duten 12 herrietako alkateei bidaliko diegu. Interneten ere jarriko dugu irakurgai, nahi duenak irakur dezan.

Gure auzo, herri edo hiriak bizitzeko leku hobe bihurtzeko erabil ditzakegun ideia on asko sortu dira.

Funtsezko ideiak:

Hurrengo orrialdeetan, lau erronken inguruan jasotako ideia, proposamen, hausnarketa eta beharrak azalduko ditugu, labur.

- * Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea?
- * Nola lor dezakegu eragiten dizueten gauzetan umeok ere parte izatea?
- * Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea?
- * Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?



1. Hirigintza eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea?

Ez da hain zaila gauzak hobeto antolatzea: asko dira beste modu batean erabil ditzakegun lekuak.

Gure herria, auzoa edo hiria nola antolatuta dagoen (hirigintza esaten diogun hori) eta umek hobeto antolatzen nola lagun dezaket aztertzeko, lantaldeek umek gehien erabiltzen dituzten espazioetan (parke, kiroldegi, kirola egiteko edo bizikletaz ibiltzeko lekuetan) zer egin eta horiek hobeto nola erabili galdetzea proposatu zuten.

Herrietan jolasteko eta gauza berriak aurkitzeko espazioak ere behar direla ahaztu gabe. Adibidez, parke natural bat eta "gainean" jolas-parke bat, denok parkeaz gozatu ahal izateko. Kolunpioak eta txirristak dituen leku bat baino hobexegoa da. Irudikatu, besterik ez da egin behar.

Nabarmendu dute, gainera, herriak ez direla helduenak bakarrik. Hala, garrantzitsua da beste gauza batzuei buruz ere denen iritzia jakitea (edozein dela ere pertsonen adina). Eta ideiak eman ahal izateko, galdetzeko moduei eta uneei buruz pentsatu behar da.

Askotan, ez dira bilerak denak joan ahal izateko moduko orduetan egiten. Edo adin jakin bat izatea eskatzen da.

Denontzako herria izan nahi badugu, garrantzitsua da nola eta noiz galdetuko dugun.

Horrela bakarrik lortuko dugu gure herria edo hiria denentzat izatea. Eta ez dadila umek bakarrik edo helduak bakarrik sar daitezkeen lekurik egon. Zer zentzu du horrek?



1. Hirigintza eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea?



Adibidez, ikastetxeetan aldaketak egitea proposatu dute, bururatutako ideia guztiekin. Umeek denbora asko igarotzen dute han eta batzuetan, jolaslekua, gelak eta jolaserako lekuak ez dira guk nahi bezain ondo egoten. Espazioak eta han dagoenak, batzuetan, ez digute interesgarriak izan litezkeen gauzak egiteko aukerarik ematen: sukaldean ibiltzen ikastea, teknologia berriak erabiltzea, kirol gehiago egitea edo kanpoan egotea.

Kalea gurea da, denona.

Eguraldi txarra denerako espazioak izatea ere beharrezkoa iruditzen zaie; are gehiago, hemen euri asko egiten duela kontuan hartuta. Bestela, etxean, tabernetan edo merkataritza-zentroetan bakarrik egon gaitzke. Askotan, kontua ez da eraikin berriak egitea, nahikoa da lehendik duguna erabiltzea (asteburuetan eskola zabaltzea, kultura-gelan edo kiroldegian

egoteko espazio bat uztea...). Edo "sabai" bat jartzea, estaltzeko.

Eta gure herriak nola antolatu pentsatzean, lantaldeetan gehien errepikatzen den gauzetako bat da partekatzen ikasi behar dela: ez du pertsona bakoitzak ordenagailu bat, telebista bat, ikasteko leku bat... izan beharrik. Denentzako ordenagailuak eta telebistak dituen gela batera edo denok elkarrekin ikasteko gela batera joan gaitzke.

Gure herri eta hiriez ari garenean kezka sortzen duen beste gauza bat zera da, askotan ahaztu egiten zaigula pertsona batzuk ezin direla etxetik atera.

Kaleaz denek gozatzea nahi badugu, lagundu egin behar da igogailuak jarri eta eskailerak kentzen, hainbeste aldapa ez egoteko ere zerbait egin behar da... Eta hori etxea dutenei dagokienez; izan ere, beste batzuek ez dute etxerik. Eta herri eta hirietan inor etxerik gabe ez egotea eskatu dute, batez ere, badirelako hutsik dauden etxeak.



1. Hirigintza eta haurrak.



Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea?

Antola liteke zerbait hutsik dauden etxe horiek erabili ahal izateko edo "etxean lekua" duenak lotokirik ez duenari lekua eskaintzeko.

Garrantzitsua da jende guztiak bizitzeko leku bat izatea.

Lantaldeetan jorratutakoaren arabera, ziurtatu egin behar da pertsona guztiak kalean segurtasunez ibili ahal izatea, beldurrik sentitu gabe edo beste inork haiengatik beldurrik sentitu gabe.

Asko aipatu da umeez, bakarrik dabilzanean, edo ondoan heldurik gabe dabilzanean, denbora hori burua argitzeko, musika entzuteko eta lagunekin berriketan aritzeko erabiltzen dutela. Beraz, denbora hori garrantzitsua denez, gauza batzuk aldatzea proposatzen dute, denak lasaiago egote aldera.

Adibidez:

Umeez telefono mugikor bat ibil dezakete aldean, badaezpada ere. Hala, aitak edo amak non dabilzan edo ondo ote dauden jakin nahi badute, jakin dezaten. Edo bestela, jar ditzatela etxera doan

deitzeko telefono-kabinak. Edo telefonoa erabiltzen utziko dieten dendetatik deitu ahal izatea.

Eskolara heldurik gabe joatetik has liteke. Zebrabide eta semaforo gehiago jar daiteke bidea seguruagoa izan dadin edo eskolara joateko kaleak margotu, jende guztiak (batez ere autoek) jakin dezan hortik kontuz igaro behar dela. Dendariekin ere hitz egin daiteke, zerbait behar izanez gero, eskatu ahal izateko.

Autoei dagokienez, ondo legoke autoak pasatzeko leku gutxiago izatea (errepide gutxiago eta kale gehiago). Hori "gogaikarria" izan liteke, baina "konpon" liteke autobus edo "botoidun" semaforo gehiago jarrita, autoek, inork bidea gurutzatu behar ez duenean, gelditu beharrik izan ez dezaten eta alderantziz.

Edo bideak egin daitezke, oinez joateko denbora gehiago behar ez izateko: adibidez, zubi bat Olabeaga eta Erribera artean, jendea oinez ibil dadin eta ez autoz.

1. Hirigintza eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea?

Beste ideia bat kale-argi gehiago jartzea edo hautsita daudenak konpontzea da, argi gehiago izateko. Argiari esker, hobeto ikusten da eta seguruago sentitzen gara denok.

Azkenik, umeez bizikletak alokatzeko zerbitzu bat izatea proposatu dute. Orain daudenak helduek erabiltzeko daude pentsatuta. Bizikletak erabiltzeko umeez ez dituzten datuak eskatzen dituzte eta, gainera, bizikletak handiegiak dira umeez erabili ahal izateko.

**Eskolara bakarrik hobeto. Horretarako agian,
"eskolara joateko bideak markatu"
bidegorriak bezala.**

Taldeetan jaso ditugun esaldi batzuk:

Duela gutxi ez nintzen bakarrik joaten kaletik ez nuelako telefonorik. Baina ya orain bakarrik joan ahal naiz telefonoa dudalako

Iturri gehiago behar ditugu

1. Hirigintza eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuek herrian oinez autonomiaz ibili ahal izatea?

Zuhaitzak behar ditugu gora igotzeko, basoa, putzua, igerilekua...

Ilun dagoen lekuetan argiak ipini, ondo ikusteko eta seguroago egoteko

Zergatik ez dago komun publiko gehiago? Eta garbiak, noski...

Busti egiten garenez, ez digute uzten...

Igogailurik ez duten etxeetan jarri, eskilerak igo ezin dituztenek erabiltzeko

Pilotaleku estali bat nahi dugu.

Laguntza eskatu ahal izateko, telefonoak doan edo deitzen utziko diguten dendak.

Non asmatu dezakegu teletransportagailua, edo abenturazko pelikulak

Exploratu mundua: mundua, gure mundua, hurren hiria hasiera baino ez da

Ez dakigu helduekin jolasten... beti daude lanean.

Gaztetxe bat adin guztietako jendearentzat.

Eskolak jolaserako denbora inbaditzen du.

Neurriko bizikletak behar ditugu

Iturri gehiago nahi ditugu

2. Parte-hartzea eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuei eragiten dizueten gauzetan zuek ere parte izatea?

Parte-hartzeari eta haurrei buruz hizketan aritu zirenek gauza bat zuten argi: ez gara umeei zer jantziko duten, eskolaz kanpo zer jarduera egingo duten edo aisialdian zer egingo duten "erabakitzen uzteari" buruz ari, baina horiek ere bai. Umeei edozein gairen inguruan eman dezakete iritzia eta ideia onak izan ere bai. Beraz, ezin dugu haien izenean erabakitzen jarraitu. Ez gauza txikietan, ezta handietan ere.

Eskubidea dute parte hartzeko, eta parte hartzeko gaitasuna eta gogoia dituzte: ideiak eman eta eragiten dieten gauzen inguruan erabaki, haien auzoan, herrian edo hirian zer egin daitekeen erabaki. Zerbait behar den edo ez edo non jarri behar den erabaki. Baratzeak, garraio publikoa, etxeak eta eraikinak non eraiki eta abar aipatu dituzte. Edo lehendik dauden gauzak nola erabili proposatu dute: musikako eraikina, kiroldegia, futbol-zelaia, parkea... Kutsadurarik gabe bizi nahi dute, autoen kerik gabe. Eta tabakorik gabe.

Zer egin, jan edo ikasi ere erabaki nahi dute. Kalera heldurik gabe atera eta nola sentitzen diren esan nahi dute, ez baitie inork galdetzen. Herrian hartzen diren erabakietan botoa emateko eskubidea izan nahi dute. Edo zalantzan jarri nahi dituzte errotuta dauden zenbait ideia; adibidez, eskolara egunero joatea nahitaezkoa izatea.

Tailerrean parte hartu duten guztiak daude ados parte hartzea horren guztiaren inguruan erabakitzea eta iritzia eman ahal izatea dela.

Baina nola lor dezakegu pertsona guztiek eta, batez ere umeei, iritzia eman ahal izatea?



2. Parte-hartzea eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuei eragiten dizueten gauzetan zuek ere parte izatea?

Lehenengo, esateko baliozko gauzak badituztela aitortzea da. Eta botoa ere eman lezaketela. Horretarako, beste edozeinek bezala, informazioa behar dute. Informazioak ulertzeko modukoa izan behar du, azken finean, pertsona guztiek beharrezko duten bezala. Izan ere, zerbaiti buruz erabakitzeke, gauza bat edo bestea erabakiz gero zer gerta daitekeen jakin behar da.

Umeentzako albistegiak egin daitezke, edo erabaki garrantzitsu bat hartu behar denean, laguntza emango dieten pertsonekin (adibidez, aitarekin edo amarekin) hitz egiteko denbora izan dezatela.

Are gehiago eskolan. Jardunaldiko partaideak ados daude gauza batean: eskolan igarotzen dute denbora gehien umeei, baina han hartzen dira umeei eragiten dieten erabaki gehien umeei galdetu gabe.

Zergatik ez galdetu zer egin nahi duten? Edo zozketa bat egin daiteke talde batek ideiak eman ditzan. Ikasturte

hasieran izan daiteke, umeei denbora izatea ikasturte horretan zer ikasi nahi duten pentsatzeko eta gero, eskoletan, denbora ematea pentsatutakoa ikaskideei eta irakasleei azaltzeko.

Bigarrena, kalean egon ahal izatea bermatzea da. Nola erabakiko dugu zerbaiti buruz zerbait hori ezagutzen ez badugu? Kalean heldu gehiago badaude, errazagoa da ume gehiago egotea, denak sentituko direlako seguruago. Erraza litzateke kalean egon nahi dugunok elkar zaintzea, elkar zaintzeko konpromisoa hartzea: zerbait gertatzen bazaigu, esatea; telefono bat jartzea edo zerbait behar izanez gero joan ahal izateko leku bat jartzea... Pertsonak, kalean ez bagaude, "ikusezinak" gara eta ikusezinak bagara, inork ez du gure iritzia jakin nahi.

Hirugarrena, galdetzea da, oso sinplea da. Lursail batekin zer egin edo kalean hautsita dagoen zerbait nola konpondu galdetzea.



2. Parte-hartzea eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuei eragiten dizueten gauzetan zuek ere parte izatea?

Haiek partaide diren jardueraren bat nola hobetu daitekeen (adibidez, kiroldegiko zerbitzua) edo herriko kale edo plaza bati zer izen jarri galdetuta. Baina galdetzeaz gainera, entzun ere egin behar da eta hori ez da hain erraza.

Normalean, helduei bakarrik entzuten diegu, ez diegu umeei entzuten, ezta adinekoei ere. Eta beste talde batzuei ere ez. Beti berdinei entzuten zaie. Horregatik, gero eta "gogo" gutxiago izaten dugu parte hartzeko. Eta ideia berriak sortzeko, pertsona desberdinek parte hartzea behar dugu. DENA alda daitekeela uste dutenak behar ditugu:

Zergatik ezin dugu "berde gehiago" edo baratzak izan, nahi duguna landatzeko edo adinari begiratu gabe jolasteko (adibidez, txabolak egiten)?

Zergatik ez asmatu gauzak autoak bai, baina oinezkoak ere izateko?

Zergatik ezin dugu ume zein heldu leku berean ikasi eta lan egin?

Zergatik ezin dugu eskolan beste modu batean ikasi? Zergatik ezin ditugu jolaslekuan ordu gehiago izan gauzak

egin ez ikasteko eta ez batzuk hitz egin eta besteek entzun egiten duten hainbeste eskola-ordu?

Jardunaldian parte hartutako pertsonen arabera, erantzun horiek lantzeko uneak eta aldatzeko erabakia har dezakeenarengana iristeko moduak behar dira, besterik ez.

Adibidez, udaletxera joan ahal izatea edo norbaitek arreta eskaintzea (alkatea edo beste norbait), postontzi bat herriko plazan... Agian aukera hori egongo da orain, baina erabiltzen ez badugu, zerbait pentsatu beharko dugu gehiago erabil dezagun. Horregatik da garrantzitsua lagun egingo diguten eta parte hartzen lagunduko diguten pertsonak izatea.

Parte hartzea, izan ere, gozatzeko eta ondo pasatzeko modu bat da eta auzo, herri edo hiriko parte sentitzeko modua ere bai.





2. Parte-hartzea eta haurrak.

Nola lor dezakegu zuei eragiten dizueten gauzetan zuek ere parte izatea?

Eskolan arazo bat konpontzeko bakoitzari bere iritzia eskatzen digute. Baina beste batzutan ez

Gauza batzutan kasu egiten digute.... Adibidez Deustuko parkea estaltzeko eskatu genuen eta egin zuten

Leku edo gauza bat kentzerakoan galdetu ahal digute zer egin leku horrekin

Pensatzen dute ez dugula ideia onik

Fabrika bat jarriko badute, zeren fabrika izatea

Askotan pensatzen dugu esandakoa txarto dagoela

Oso ideia onak ditugu; adibidez, zergatik ezin gara jolas egitera San Mamesera joan?

Parte hartzea taldeka zeozer egitea eta konpartitzea da, gauza baten parte zarela sentitzea.

Parte hartu ahal dugula sinistea.. zaila da.

Alkatea gure azalean imini behar da...imagina dagian zer gustatzen jakun

Batzutan ez gaituzte entzuten

Hasteko... irakasleek entzun gaitatela eta hitz egin diezagutela ondo.

3. Eskubideak, jolasa eta hiria.

Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea?

Haurren eskubideak jorratu zituzten taldeek gauza bat zuten argi: gauza bat da paperean zer jartzen den eta bestea benetan zer gertatzen den.

Teorian, umeei eskubide asko dituzte eta lege batean jasota daude.

Behean aipatuko ditugu partaideen ustez umeei haien herri edo hirian bermatu behar litzaizkiekeen eskubideetako batzuk. Hau da, denok egin behar genuke lan horiek betetzeko.

Leku "berdeez", naturaz, gozatzeko eskubidea, auzotik, herritik edo hiritik atera beharrik gabe.

Espazio berde gehiago behar dira herri eta hirietan eta espazio horiek askotariko gauzak egiteko aukera eman behar dute. Hori bai, beti errespetatu behar da natura, zikindu gabe, eta zaindu, jakina.



Adibidez, ez dago onartzerik leku berde guztietan txakur-kakak gotea.

Txakurrak dituztenak hori errespetu-falta dela ohartzen ez badira, ulertarazi egin behar diegu. Isunak jartzea da aukeretako bat. Beste aukera bat denboraldi batez, astebetean edo hilabetean, kakak jasotzea da. Hori egin dezakegu gogaikarria dela eta ez dagoela ondo jabe daitezkeen eta ikus dezaten denok pixka bat saiatzen bagara, ez duela inork "dena egin behar".

Gauza bera gertatzen da ibaiekin; ez direla zaintzen garbi egon daitezkeen. Gehiago birziklatu behar da eta gehien birziklatzen duenari ordaina edo saria eman dakiok: birziklatzeagatik doan jolasteko bonuekin "ordaintzea", gabonetako haur-parketarako sarrerak ematea edo interesgarria izan litekeen beste edozer.

Kalean lekurik ez dagoelako espazio berderik jarri ezin den lekuetan, lorategi edo parke txikiak egin daitezke eraikinen teilatuetan, edo eraikinak erabili eta "barneko parke berde" bihurtu.

3. Eskubideak, jolasa eta hiria.

Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea?

Ia talde guztiek aipatu duten beste gai bat zera da, garrantzitsua dela pertsona guztiak, kalean dabiltzanean, ondo sentitzea.

Hirian batetik bestera ibiltzeko eskubidea.

Aipatu dute, arazoa, askotan, ez dela kalean egoten, baizik "buruan": leku bat benetan dena baino arriskutsuagoa iruditzen zaigu. Edo umeei kalean ez dutela "buruz jokatzeko" eta "lelokeriak" egiten dituztela. Hori aldatu egin behar da.

Beste modu batean pentsatzen lagun dezake, adibidez, badaezpada udaltzain gehiago izateak, baina batez ere, helduei umeei konfiantza gehixeago izateak lagunduko du.

Beste ideia bat, beste talde batzuek ere aipatu dutena, umeei erabili ahal izateko bizikleten zerbitzu publikoa izatea da. Bizikleta txikiagoak eta bidegorri gehiago, lasai ibiltzeko.

Eskolaren gaia atera da jardunaldiko lantalde guztietan. Eskola ikasteko lekua da, baina batzuetan, gauzak antolatzeko edo egiteko

moduak zaildu egiten du ikastea. Edo pertsona batzuei oso zail egiten zaie ikastea. Eskolan ikastea bete beharreko eskubidea da eta, horretarako, aldaketak egin behar ditugu.

Modu batean baino gehiagotan ikasteko eskubidea.

Bai, pertsonok elkarrengandik desberdinak gara.. eta ikasi ere ezberdin egiten dugu. Ikastea beharren, emozioaren edo irrikaren mende badago...

Si el aprendizaje depende de las necesidades, la emoción o el entusiasmo...

Zergatik tematzen gara denok "berdin" ikaste horretan?



3. Eskubideak, jolasa eta hiria.

Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea?

Adibidez, teknologia berriak erabil daitezke. Umeek erraz erabiltzen dituzte eta gainera, ikusgarriak izaten dira. Lan interesgarri ugari egin daitezke teknologia berriekin. Eta eskolatik kanpo, edo oso urruti dauden gauzekin konektatu eta horiek ezagut daitezke.

Egin beharreko beste aldaketa bat zer eta nola ikasten den lantzea litzateke. Eskoletan landuko denaren inguruko erabakia irekiagoa izan daiteke eta galde daiteke txangoa/bidaia nora egin edo zein litzatekeen gauza bat ikasteko modurik onena (zailtasun txikieneko). Aipatu dute, halaber, ideia horietako asko abian direla jada ikastetxe batzuetan eta badirela horri buruz idatzi eta gauzatzeko moduak aurkitu dituztenak ere (Montessori, Reggio Emilia, Waldorf, Pestalozzi...).

Hala, erabil daitezke, ezer berririk sortu beharrik gabe.

Partaideen ustez, garrantzitsua litzateke horiek gauzatu bitartean, eskolan, jolasteko denbora gehiago izatea. Jolasean asko ikasten

baita. Eta jolastean, gainera, ahaztu egiten zaigu "zuzena den hori", ahaztu egiten zaigu erantzun behar dena erantzutea eta espero dena egitea.

Jolasean hobeto sentitzen gara eta askeago gara.

Jolasteko eskubidea

Lehen aipatu dugun moduan, jardunaldiko partaideen iritziz, jolaserako eskubidea eskubiderik garrantzitsuenetako bat da.

Ez umeentzat bakarrik, baizik gogora ekarri dugu jolasa beharra dela, funtsezkoa dela. Eta denontzat da beharrezkoa, handi zein txikientzat.



3. Eskubideak, jolasa eta hiria.

Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea?

Eta partaideen iritziz, jolastu ahal izateko, batetik, jolasteko denbora behar dugu, jolaserako uneak. Une horiek, batzuetan, "sortu" egin behar dira, bestela betebeharrekin "jan" egiten baikaituzte eta ez baitugu jolasteko denborarik hartzen. "Jolaserako uneak sortzea" diogunean, denboraz eta lekuez ari gara, baina baita pertsona batek jolasteko behar duen guztiaz ere (lasai egotea, ondo egotea, aske sentitzea, ondo edo gaizki egiten ari den esango dion inor begira ez egotea...).

Lantaldeak ados daude gauza batzuek jolastea oztopatzen digutela edo jolasteko denbora izatea oztopatzen digutela esatean. Oztopo horietako bat "etxerako lanak" dira. Denbora asko behar da etxerako lanak egiteko eta denbora gutxi uzten dute familiarekin, lagunekin edo norbere buruarekin egoteko. Asteburuetan eta oporretan ere etxerako lanak izaten dira. Azkenean, jolastu gabe joaten da eguna: eskolak, eskolaz kanpokoak, etxerako lanak, azterketak, lana, etxeko lanak...

Ez dirudi herri eta hirietan ere libre jolasteko espazio asko daudenik. "Nahi duzun horretara", "zure kasa" eta irudimena soilik erabilita jolasteko.



Idea batzuk:

- Parke estaliak
- Etxeak erabili eta parke tematiko bihurtzea.
- Kirola egiteko lekuak, baina "erdigunean", bertara oinez joateko moduan.
- Dantzarako lekua. Ispiludun horma bat eta txanponen bidez funtzionatzen duen irrati-kasete bat.
- Ibaiak garbi eta bainatzeko lekuekin.
- Kiroldegiak izan ditzala aretoak hutsik edo gauza erabilgarriz hornituta, ordu batzuetan jolasteko aukera izateko.
- Eskola arratsaldetan, asteburuetan eta oporretan ere zabaltzea, futbol-zelaia, saskibaloikoa, pilotalekua... erabili ahal izateko.

Helduek hainbeste ordu lan egiteak ere kezka sortzen du.

Lanean hainbeste ordu ez egitea, diru gutxiago irabaztea, gutxiago gastatzea eta denbora hori egun batzuk jai hartzeko erabiltzea proposatu dute. Lan hori lanik ez duen norbaitek egin dezake. Hala, denok izango genuke denbora libre eta diru gehiago bizitzeko.

3. Eskubideak, jolasa eta hiria.

Nola lor dezakegu gehiago eta hobeto jolastea?

Helduek ez digute jaramonik egiten. Ekar dezatela gogora haiek umeak zirenekoa, entzun gaitzatela gehiago.

Telefono mugikorra "txarra" dela uste dute. Eta gelan erabili ahal izango genuke jarduera interesgarriagoak egiteko.

Asfaltoa kendu eta belarra jarri.

Oporretan etxerako lanak eginarazten badizkigute, ez dago zalantzen inguruko kontsultarik egiterik.

Helduok jostailu asko erosten ditugu, baina ez daukagu jolasteko denborarik.

Eduki dezatela fede handiagoa gudan, beldur gutxiago.

Liburuetatik eta boligrafoetatik kea ateratzen da

Ez digute uzten gurasoek kit – kat bat egiten

Landa libreak.

Eskolan, errieta egiten dute zerbait ez badakigu.

4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?

Tailerreko partaideek galdera honi erantzun behar izan zioten: nola lor dezakegu denok batera ikastea?

Sinetsi egin behar dugu denok ikas dezakegula: denongandik, modu batean baino gehiagotan, askotariko estiloetan eta askotariko gauzetatik..

Partaide guztiak ados zeuden ezagutzeko eta partekatzeko interesa dugunean ikasten dugula esatean. Eta askotarikoak dira ikasi eta partekatu daitezkeen gauzak: patinatzea, oinez ibiltzea, ingelesa, matematika, hizkuntza, marrazketa, koadroak marraztea, bizikletan ibiltzea, skatea, urpean arnasarik hartu gabe egotea, nabigatzea, arropa diseinatzea eta argazkiak ateratzea...

Nabarmendu zuten, gainera, bizi osoan ikasten dugula (5 urterekin, 15ekin, 35ekin, 50ekin eta 90ekin) eta etengabe, horretarako aske bagara behintzat. Ez dago

ahazterik egiten ditugun hutsegiteetatik ikasten dugula gehien.

Beti eta etenik gabe ikasten badugu, non ikasten dugu? Agerikoa da erantzuna: leku askotan ikasten dugu. Eskolan, telebistan, museoan, autoeskolan edo erosketak egitean. Botikara, fruta-dendara, okindegira joan edo autobusa edo metroa hartu... eta ikasi.

Hiriak, herriak eta naturak "autoikasteko" aukera ematen digute, beste inork zer edo noiz ikasi behar dugun erabaki gabe.

"Arlo sozialeko gauzak" ikasten ditugu eta askotan jolasean, hizketan-entzuten, eginez edo begira gaudela ikasten ditugu.



4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?

Inguruan ditugunengandik ikasten dugu gehien: familia, lagun, irakasle edo bizilagunengandik. Hortik ateratzen ditugu ideiak eta hortik ezagutzen ditugu gauza berriak, ondoren, beste gauza batzuk irudikatzen eramango gaituztenak. Elkar ondo tratatzen eta zaintzen ere ikasten dugu.

Edozein lekutan eta edozeinekin ikas badaiteke, zergatik ez dugu egiten?

Errealitateak erakusten du, izaten direla batzuetan ikastea zailtzen duten gauzak. Gauza batzuk gure esku daude (ikasteko gogoia, esaterako) eta besteak ez (lekua, denbora edo norbaitek behartzea). Badirudi ikasteko dugun arazorik handienetako bat denbora dela. Ia gauza berdinak egiten ditugu egunero, pertsona berberekin egoten gara, oso antzeko gauzak egiten. Errutina esaten diogu horri.

Errutinaren haritik, presaka ibiltzen gara beti eta ez dugu elkarrekin egoteko (bereziki helduak eta umeak) denborarik izaten. Ordutegiek ez digute uzten:

Aitana	Aroa	Carlos	Jon	Pablo	Eukene
08:30 eguna hasi	08:15 eguna hasi	08:30 eguna hasi	07:15 eguna hasi	08:00 eguna hasi	08:00 eguna hasi
09:30 eskola	09:00 eskola	09:00 eskola	08:00 lana	08:55 eskola	09:30 lana
(ebterako lanak)	12:30 bazkaria	14:00 bazkaria	14:30 bukatu	16:15 bukatu	15:00 bukatu
16:30 bukatu	15:00 eskola	14:30 eskolara	16-18 lana	18 eskolaz kanpoko jarduerak	16-18:30 kontziliazioa
17:00 matematika	16:30 bukatu	16:00 bukatu	19-21:30 euskaltegia	22:00 ohera	22-24 lana
18:00 ingelesa	18:00 jolasgaraia	17:15 eskolaz kanpoko jarduerak			
20:00 libre	19:30 ebterako lanak	19:00 Taekwoondo			
21:00 ohera	Atsedena	20:00 libre			
	22:00 ohera	22:30 ohera			



4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?

Ikasteko dugun beste arazoetako bat da pentsatzen dugula ezin dela pertsona guztiengandik ikasi.

Pertsona helduek, umeei baino urte gehiago dituztelako, umeei baino gehiago dakitela uste dute. Gu ez bezalakoak direnengandik ikasteko, pazientzia behar da eta, jakina, ez da oihurik egin behar. Gauzak ez errepikatzen, zer nahi edo behar dugun azaltzeko behar adina denbora hartzen... ikasi behar dugu. Ez du balio "dena dakigu" pentsatzeak. Batzuetan, adinak ezagutza jakin bat "fresko" izatea edo zaharragoek ez dakizkiten edo ahaztu egin dituzten gauzak jakitea dakar.

Ikasteko, konfiantza gehiago eta kontrol gutxiago behar da.

Tartea utzi behar zaio huts egiteari. Esaten dugun gauza bakoitzak eta esaten dugun moduak ikasten lagun dezake, edota alderantziz: "kontuz, erre egingo zara! Nik hartuko dut", "Erortzen bazara jo egingo zaitut".

Huts egitea beharrezkoa da, edozein adinetan, eta ez da aitzakiarik jarri edo haserretu behar pertsona batek edo guk geuk huts egitean.

Espazioak eta espazioaren antolaerak (arauak, leku batean zer egin daitekeen eta zer ez) ere eragin egiten diote ikasten dugunari.

Eskola da horren adibide argi bat: zergatik da nahitaezkoa zuzen eserita egotea? Edo zergatik dago debetatuta animaliak edo gurpildun gauzak eramatea? Espazioek, batzuetan, ulertzen ez ditugun arauak izaten dituzte eta interesgarria litzateke horiei buruz iritzia ematea.

Orduan... **ba al dakigu zer aldatu behar dugun gehiago ikasteko eta elkarrekin ikasteko?**



4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?

Lehenengo, **kontrol gutxiago eta konfiantza gehiago** behar da. Eta ondo pasarazten diguten gauzak egiten saiatzea. Badirudi umeak bakarrik aspertzen direla. Denok aspertzen gara.

Has gaitezen elkar ondo eta begirunez tratatzen.

Elkarrekin egoteko eta hitz egiteko tarte bat hartzea, "zirikatu" gabe, "sermoirik bota" gabe eta beti arrazoia izaten saiatu gabe. Gehiago entzuteko beharra dugu eta, batez ere, ondo entzuten jakitekoa. Gehiegi hitz egin eta gutxi entzuten dugu: gauzak galdetu eta gero, ez ditugu erantzunak entzuten. Ez dezagun ahaztu denok garela gai gauza politak esan eta egiteko eta gure artean atseginagoak izan gaitzkeela.

Dena ez sinesten ere ikasi behar dugu, **kritiko izaten**. Dena sinestea da errazena, ezer zalantzan jarri gabe, baina egiaztatu egin behar da esaten digutena egia dela, nork esan digun epaitu gabe. Ikasteak arduraz jokatzeari eskatzen du.

Badirudi eskola dela aldatu beharreko beste gauza bat.

Formak (nola ikasten den) eta edukia (zer ikasten den) aldatzeko beharra aipatu dute. Adibidez:

Nola:

- Tailer gehiago, eskola teoriko gutxiago
- Txokoak, denbora-tarteka
- Teknologia gehiago (play jokoa, tableta, ordenagailua...)
- Azterketa gutxiago
- Zertarako balio dute etxerako lanek?
- Kanean eta lagunekin egiten ikastea.
- Liburuan jartzen duena bakarrik esaten duten irakasleak: nortasun handiagoa

Zer:

- Bakoitzak nahi duena ikasteko aukera izan dezala
- Badira ikasi nahi ditugun arren eskolan ez dauden gauzak
- Lanbideei buruz ikastea: eskolan medikuntza ere lantzea nahi nuke
- Abestea, ez musika-tresnak jotzea, eta musika-tresna bat aukeratu ahal izatea. Edo plastika gehiago.



4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?

Tailerrean parte hartu zuten pertsonak eskolan ondo funtzionatzen ez duten gauzak aldatzen laguntzeko bi ideia ere pentsatu zituzten:

1. Eskoletan ordu batzuk "beste modu batzuetan eta beste gauza batzuk ikasteari" eskaintzea:

- Lanbideak ezagutzea, jolastuz ikastea, istorioak eta esperientziak kontatzea...
- Ikerketa/esplorazio bat: adibidez, ordu batzuk adineko pertsonekin igarotzea, baratzak jartzea, arropa diseinatzea, jostea... tailer gisa. Supermerkatura joatea gauzek zer balio duten ikastera (batuketak, ehunekoak...)

2. Etxerako lanak aldatzea:

- Egun batean bai eta hurrengoan ez. Denboran ere doitzea (ez daitezela hainbeste izan, batez ere oporretan).
- Beste mota batzuetako etxerako lanak: adibidez, film bat ikusi eta laburpen bat egitea edo filma ikusi eta ikusitakoa gelan kontatzea. Edo etxerako lan gisa, ez genekien zerbait ikastea (gure familiari, dendariari, bizilagunari edo alkateari buruz). eta ikusitakoa nola ikasi dugun eta zer ikasi dugun azaltzea.

Bestalde, eta eskolatik harago joanda, tailerrean parte hartutako guztiak etorri ziren bat esatean **gauza desberdinak ikasteko aukera eskainiko diguten leku berriak behar ditugula.**

Lehenik, ulertu behar da hiria, herria, auzoa bizitzeko, esploratzeko eta ezagutzeko leku bat dela. Ikasteko, gozatzeko eta barre egiteko aukeraz bete dagoela.



4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?

Hiriari edo herriari beste begi batzuekin begiratuta, ikasteko eta elkarrekin hazteko espazio edo leku berriak aurkituko ahal izango ditugu. Denon artean pentsatu behar ditugu leku horiek.

Garrantzitsua litzateke leku horietan adina garrantzitsua ez izatea: helduak eta umeak biltzeko lekuak izatea eta trukeak egitea, adibidez, "gauzak nola egiten diren" jakiteko, besteek egiten ez dakiten eta ikasi egin nahi duten gauza bat nola egiten dugun azalduz.

Denbora-bankuak edo erabilera anitzeko zentroak ere jar daitezke abian, beste altzari batzuekin, gauza ezberdinak egiteko leku gehiago izan dezagun. Jolasteko lekua izateko.

Ahaztu ezinezko beste gauzetako bat da ez dagoela beti espazio berriak asmatu beharrik. Badira gure herrietan itxita dauden denda, museo, liburutegi, ikastetxeko jolaslekuak. Horiek "zabaldu" eta beste modu batean "erabil" ditzakegu. Eskatzen has gaitzke.

Leku ezberdinetan, leku irekietan egoteak pertsona ezberdinekin, ezezagunekin, egotea dakar. Batez ere, antolatzen diren gauzak (jarduerak) adin jakin bateko pertsonentzat ez direnean: ez dagoenean adinekoentzako gauzarik edo umeentzako gauzarik.

Pertsona desberdinak, handi, ertain eta txikiak, elkartu ahal izatea litzateke onena.

Hasieran lotsa edo beldurra senti dezakegu, baina saiatu besterik ez da egin behar, eta behar denean laguntza eskatu. Askotan ez dugu "hizkuntza" bera hitz egiten, baina ez dago dena hitzez azaldu beharrik. Emozioak eta zerbait egiteko ilusioa indartsuagoak dira.

Gainera, askotariko pertsonak elkartuta, ezagutza, esperientzia, ikuspegi... gehiago izango ditugu. Eta gauza gehiago egin genitzake, elkarri hobeto lagundu edo erronkei hobeto erantzun.



4. Komunitatea, ikaskuntza eta hiria.

Nola lor dezakegu denok ikasi eta elkarrekin haztea?

Interesatzen zaiguna
bakarrik entzuten dugu

Guztiok ez dugu modu
berean ikasten baina
leku berean ikasi behar
dugu. Zergatik?

Denbora gorde gauza
berriak egiteko, gauza
berriak egin emozio
berriak topatzeko

Denok ikasten dugu
eta beti, edozein
momentu eta tokitan

Heldu batzuek
haurtxoak bagina bezala
edo ezer jakingo ez
bagenu bezala tratatzen
gaituzte.

Ondo trateu,
pertsonek bagina
bezala.

Erreza da esaten
diguten dena sinestea.
Baina ez, kritikoak
izan behar dugu

Ikasi nahi dugunean, beti
izaten da aitzakiaren bat.

Irudimenetik
ikasi behar da.

#UmHerri16 Haurrak eta Hiriak

5. Dokumentuak eta beste material batzuk.


Estekak:

- * UmHerri16. Ibilbidearen aurkezpenak.
- * UmHerri16. Jardunaldiaren laburpen-bideoa.
- * Umherri16. Pernan Goñiren Ekarpena.

Eta Haurren Hirien Sareari buruz:

- * HaurrenHiria proposamenaren laburpena.
- * Udalerrientzako gonbidapena eta proposamena.

UMEAREN PARAMETRORA igarotzea



Mila esker

Jardunaldiak burutzeko talde - lana behar-beharrezkoa izan da.

“Haurrak eta Hiria” izenburupean jardunaldi honen eduki zein formak imajinatu eta posible egin dituen Haurren Hirien Sarea osatzen duten lan taldetik hasita, diseinua euren borondate eta gogoeten isla baita. Era berean, jardunaldietan bertan, norbera bere funtzio eta arduretatik, laguntzaile ugari izan genituen.

Eta horregatik gure esker ona adierazi nahi diegu hemen. Lana eta energia neurtezinak direlako, mila esker!

Aintzane Lanborena (Balmasedako Udala)
Aintzane Urkijo (Santurtziko Udala)
Álvaro Parro (Balmasedako Udala)
Ametz Jauregizar (Bakioko Udala)
Ander Garay (Arrasateko Udala)
Andoni Rekagorri (Bilboko Udala)
Arantxa Oria (Tolosako Udala)
Beatriz Nuin (EJ – Osasun saila)
Begoña Bañuelos (Erandioko Udala)
Begoña Pereira (Innobasque)
Blanka Jauregi (Arrasateko Udala)

Carlos Totorika (Ermuako Udala)
César Mosquera (Diputación Pontevedra)
Deustu Ikastetxea - CEIP Deusto HLHI
Deustuko Ikastola
Elsa Fuente (Unicef Euskadi)
Emilio Reina (Sopuertako Udala)
Enara Díez (Leioako Udala)
Enrique Arce (Berritzegune Leioa)
Eukene Fernandez (Solagune)
Eunate Guarrotxena (Larrabetzuko Udala)
Eva Aiestaran (Tolosako Udala)
Fabio Cavaliere (Sopuertako Udala)
Francesco Tonucci (CNR Roma)
Goizalde Atxutegi (Innobasque)
Gorane Oleaga (Bakioko Udala)
Gorka López (Balmasedako Udala)
Gotzon Bernaola (Innobasque)
Gurutze Ezkurdia (Euskal Herriko Unibertsitatea)
Iban Rodriguez (Leioako Udala)
Idoia Bidaurrezaga (Innobasque)
Inma Pérez (Tolosako Udala)
Iñaki Arrese (Irungo Udala)
Iñigo Gaztelu (Larrabetzuko Udala)
Isabel Calvo (Irungo Udala)
Itxaso Sánchez (Balmasedako Udala)
Ixone Soroa (Innobasque)
Jaume Bantulá (Universidad Ramón Llull)
Jaume Funes (Universidad Barcelona)
Jesús Fole (Ayuntamiento de Pontevedra)
Josean Castaños (Gaztematika – GFA)

Josean Riveiro (Erandioko Udala)
Joseba Goikouria (Erandioko Udala)
Juan Maria Aburto (Bilboko Udala)
Candela Fernandez (Arrasateko Udala)
Karmele Fernandez (Solagune)
Lara Alonso (Ermuako Udala)
Leioako Umeen Kontseilua
Leticia Borregan (Balmasedako Udala)
Lexuri Ayarza (Santurtziko Udala)
Maitane Leizaola (Bizkaiko Foru Aldundia)
Manuela González (Bilboko Udala)
Margi Iturriza (Tolosako Udala)
Mari Carmen Urbieta (Leioako Udala)
Maria Ubarretxena (Arrasateko Udala)
Matxalen Acasuso (COAVN)
Mendia Eskola - CEP MENDIA
Nagore Dominguez (Ermuako Udala)
Nerea Cereceda (Tolosako Udala)
Nuria Carbonell (Tolosako Udala)
Patricia Martínez (Innobasque)
Patxi Cirarda (EJ – Osasun saila)
Pedro Alegre (Irungo Udala)
Piter Blanco (Solagune)
Raquel Salcedo (Bilboko Udala)
Rosa Rodrigo (Bilboko Udala)
Ruth Lopez (Solagune)
Sandra Cid (Ermuako Udala)
Unai Etxebarria (Innobasque)
Zubi Zaharra Ikastola





Haurrak eta Helduak Hiria Elkarrekin lantzen



Haurren Hirien Sarea
Red Vasca Ciudades con la Infancia

#UmHerri16 Jardunaldiak.

www.haurrenhiria.org



Antolaketa

La Comunidad como Entorno de Aprendizaje y Haurren Hirien Sarea

HerriLaborategia



Laguntza

